

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/036

Izenburua: PREZIOEN PROBINTZIA BATZORDE DELEGATUA

Datak: 1967 - 1985

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 15 instalazio unitate

Sortzailea: PREZIOEN PROBINTZIA BATZORDE DELEGATUA

Erakundearen historia:

Errenta Batzordearen —194/1963 Legearen bidez sortua— osaera eta eginkizunak arautzen zituen abenduaren 6ko 2910/1967 Dekretuaren bidez, ezarri zen aurrerantzean Errenta eta Prezioen Batzordea izena izanen zuela, eta probintzia bakoitzean sukurtsal bat izanen zuela, Gobernadore Zibila buru zuena. Azaroaren 30eko 12/1973 Lege Dekretua garatzen zuen maiatzaren 22ko 1531/1974 Dekretuan, prezio politikari buruzko zatian, Prezioen Probintzia Batzordeen eskumenak arautu ziren. Gobernadore Zibila buru zutela, ministerioetako probintzia ordezkariak eta probintziako hiriburuko alkateak izendatutako bi zinegotzik osatzen zuten. Prezioen Probintzia Batzordeko idazkaria Barne Merkataritzako probintzia burua zen. Prezioen arloko araudiari buruzko urriaren 28ko 2695/1977 Errege Dekretuaren bidez arautu ziren, batetik, baimendutako eta jakinarazitako prezio erregimenen mendeko ondasun eta zerbitzuen prezioak igotzea eskatzeko beharrezkoak ziren eskakizunak, eta, bestetik, produktu edo zerbitzu berrien prezioen baimenak. Ekoizleen, merkatarien eta kontsumitzaileen ordezkarien parte-hartzea txertatu zen —bai Prezioen Batzorde Gorenean, bai Probintzia Batzordeetan—, baita sindikatuen parte-hartzea ere. Ekainaren 19ko 1127/1985 Errege Dekretuaren bidez, Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion prezioetan esku hartzeko eginkizunak; ordura arte, Prezioen Batzorde Probintzial Delegatuari eta Gobernadore Zibilari esleituta zeuden.

Funtsaren antolamendua:

036.01 GOBERNUA

036.01.01 Batzordearen aktak

036.02 ZERBITZUAK

036.02.01 Prezioen baimen eta aldaketa espedienteak

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.